

## Krisi garaian aurrezteko, aho bakarreko itsulapikoa: gutxiago sartu, gutxiago atera

ZOR PUBLIKOA, BANKU GORDAILUAK ETA DIRU FUNTSAK AKTIBO SEGURUAK DIRA: JENDEAK INBERTITU DUEN KAPITALA BABESTEN DUTE ETA, GUTXIENEZ, % 3KO ERRENTAGARRITASUNA EMATEN DUTE URTEAN



Inbertsioek haizea alde izan dute azken urteetan, baina giroa asko nahastu da. Haize alde, Espainiako burtsak % 30 egin izan du gora urtero, eta etxebizitzaren balioa % 20 handitzera iritsi izan da urtebetean. Baina orain ez da lehengo konturik. Burtsa lur jota dabil, etxebizitzaren prezioak gainbera doaz, pensio plan gehienak galera iturri dira... Krisi hotsak besterik ez dira entzuten Ameriketako Estatu Batuetan eta Europan, dena da krisi bankuentzat eta ekonomia-errentzat, eta inbertsiogileek ere ikusi dute zer datorkien: daukaten hori galtzeko arrisku galanta. Estrategia aldatu beharra daukate, beraz, lehengo helburu handi-nahiei eustea ezinezkoa baita. Baina, zein bide hartzea komeni da?

Jendeak badaki ezingo duela irabazi orain urtebete adina, baina inor ez dago etsitzeko prest. Sekula baino diru-joko gehiago dabil bazterretan, aurrezkiak nora eraman, nola babestu eta nondik handitu, hori da auzia. Inbertsio mota seguruak nahi dituenak hiru, behintzat, aurkitu ahal izango ditu: zor publikoa, banku gordailuak eta errenta finkoa ematen duten diru funtsak, oso epe motzekoak. Aurrezkiak babesteko produktu onak dira, eta urtean % 3 baino gehiago irabazteko aukera ematen dute.

### Zor publikoa, ezin seguruagoa

Aktibo seguruena da, dirua aurreztu eta denboratxo pasata, irabaziak ateratzeko. Mota bat baino gehiagoko produktuak eskaintzen ditu zor publikoak:

Altxor Letrak (hiru, lau, sei, hamabi eta hemezortzi hilabeterako), bonuak (hiru eta bost urterako) eta obligazioak (hamar, hamabost eta hogeita hamar urterako). Espainiako Gobernuak jaulkitzen ditu aktibo horiek, eta irabaziak ere hark bermatzen ditu. Eta Espainiako Konstituzioak. Hantxe dago idatzia, herritarren lasaigarri, ziur ordainduko zaizkiela interesak eta irabaziak. Inork frogarik behar bazuen, hortxe dauka argiena: inbertsio ezin seguruagoak dira. Horrek erakarrita edo, gero eta inbertsiogile gehiagok jartzen du dirua zor publikoan. 2005. urte amaieran, jendeak 4.275 milioi euro hartuak zituen Altxor Letretan, eta 2008. urteko uztailean, 5.377 milioi eurokoa zen kopurua, % 26 handiagoa.

Aktibo seguru eta errentagarriak eskaintzen ditu zor publikoak, eta inbertsiogileei aukera ematen die haien zorroko berrantolatzeke. Guztien artean bat bereizi beharko bagenu, Altxor Letra bereiziko genuke, besteek baino epe motzagoan ematen duelako dirua. Zor publikoan, hala ere, epe luzera egiten den inbertsioak gehiago ematen du, burtsan bezala, eta Altxor Letren aldean, errentagarriagoak dira bonuak eta obligazioak.

Azkena egin den enkantean, irailaren 22koan, urtebeterako Altxor Letrak % 4,29ko interesarekin jaulki zituzten, batez beste, eta hori bada zerbaite, are gehiago burtsa nola dabilen ikusten badugu (% 30 baino gehiago galdua zuen irail bukaeran). Altxor Letrak beti ez dira hain goitik ibili, baina une honetan, aspaldian ez bezain errentagarriagoak dira (azken zortzi urtee-

tan ez dute eman hainbesteko irabazirik). Bonuek eta obligazioek gehixeago ematen dute, baina ez askoz gehiago: hiru eta bost urterako bonuak % 4,34ko eta % 4,8ko interesarekin jaulki zituzten azken enkantean, eta hamar eta hogeita hamar urterako obligazioak, % 4,61 eta % 4,9ko interesarekin, hurrenez hurren. Batzuen eta besteen artean zein alde dagoen ikusita, gaur-gaurkoz, egokiagoa da epe motzerako inbertsioak egitea.

Inbertsio mota bat edo bestea hautatu, erosleak edozein unetan saldu ahal izango ditu aktibo horiek. Aurrez ezin da esan zenbat aterako duen horiek salduta, ikusi egin behar baita une horretan merkatuan zer prezio egiten duten letrek, bonuek eta obligazioek. Gehienetan, merkatuko interes

tasen arabera izaten da aktibo horien errentagarritasuna. Interes tasak igotzen badira, jaulkipen berrien errentagarritasuna ere igo egiten da. Lehendik jaulkitako tituluek, ordea, balioa galtzen dute. Beraz, dirua ez galtzeko, norbaitek epea bete baino lehen saldu beharra badauka, jaulkipen berrien tasak jaistean egitea komeni izango zaio.

### Zergatik da interesgarria zor publikoan inbertitzea?

Finantza produktu oso erakargarriak dira Altxor Letrak, bonuak eta obligazioak, hainbat arrazoiengatik, gainera:

- **Errentagarritasuna:** azken enkantean, hamabi hilabeterako Letrak % 4,29ko interesarekin jaulki zituzten, bonuak %

4,6koarekin, batez beste, eta obligazioak, % 4,8koarekin.

- **Altxor Publikoak segurtasuna ematen du:** nazioarteko kreditu kalifikazio gorena eskuratua du.

- **Zerga sistema erraza dute:** aurrezki produktu guztiekin gertatzen den bezala, irabazien % 18 ordaindu beharra dago zergatan.

- **Gutxienez egin beharreko inbertsioa ez da izugarria:** inbertsiogile guztiei interesa sortzeko moduko produktua da. Letretan, adibidez, 1.000 eurotik has daiteke inbertitzen, eta hortik gora ez dago mugarik.

- **Inbertsioa egiteko modu asko daude:** Espainiako Bankuan kontu bat irekiz egin daiteke inbertsioa, Internet bidez Altxor Publikoan sartuta, edo finantza bitartekari batzuen bitartez (aurrezki kutxa eta banku batzuek eskaintzen dute inbertsio horiek egiteko aukera).

### Banku gordailuak: % 6ko interesa urtebetera

Zor publikoak baino eskabide handiagoa dute, eta ia hura bezain seguruak dira. Finantza ondarearen % 50 gordailu horietan jarrita daukate Espainiako inbertsiogileek. Lehen seihilekoa amaituta, 700.000 milioi euroko inbertsioa egina zegoen banku gordailuetan. Horiek nola funtzionatzen duten ulertzea oso erraza da: banku eta aurrezki kutxek interes tasa jakin bat ezartzen dute aurrez, eta horixe agintzen diote denbora baterako dirua han sartzen duen bezeroari.

